

IKAS, kultur elkarte baten adibidea / IKAS, association culturelle basque



Danielle Albizu*

IKAS, euskal kultur elkarte 1959-an sortua, 1996-etik goiti, EUSKAL PEDAGOGIA ZERBITZUA deitzen da. Ustaritzeko Lota jauregian dago bere egoitza. Hiru zerbitzu mota eskaitzen ditu: Argibide zentroa, bereziki pedagogiko liburuak euskaraz; Liburugintza pedagogikoa ikasle eta erakasleentzat eta Egitasmo pedagogikoak, hala nola, ikastetxean elkarriketa ikasle, erakasle eta idazle en artean.

Giltz-Hitzak: Argibide. Liburugintza. Egitasmo pedagogikoak. Elkarriketak ikasle. Erakasle eta idazle en artean.

IKAS, association culturelle basque crée en 1959 est devenue, depuis 1996 CENTRE PEDAGOGIQUE BASQUE. Son siège est Lota jauregia. 64480 Ustaritze. Ikas propose trois types de service: Un centre de documentation; Un service de création et d'édition de matériel pédagogique et Des animations pédagogiques.

Mots Clés: Documentation. Création et édition. Animations pédagogiques. Rencontres entre élèves. Enseignants et écrivains.

IKAS, asociación cultural vasca creada en 1959 es, desde 1996, CENTRO PEDAGÓGICO VASCO. Su sede es Lota jauregia. 64480 Ustaritze. Ikas propone tres tipos de servicio: Un centro de documentación; Un servicio de creación y edición de material pedagógico y Animaciones pedagógicas.

Palabras Clave: Documentación. Creación y edición. Animaciones pedagógicas. Encuentros entre alumnos. Profesores y escritores.

* Iñuri-Alde. F-64122 Urruña

1. IKASEN SORTZEA

Mintzaldi honen gaia da, beraz, IKAS elkartearen aipatzea. IKAS sortu zen 1959ean. Sortzaileen artean hor dugu Madalena de JAUREGUIBERRY, bai eta ere, beste andere bat, gure artean dena egun, Jeanne Marie MALHARIN.

Geroztik, Ikas handitu da, bere bidea segituz eta gaur egun, EUSKAL PEDAGOGIA ZERBITZUA bilakatua da, USTARITZEko LOTA gazte luan kokaturik.

Itzul gaiten elkarte horren sort-egunera, 1959ko agomilaren 28ra.

DEIXONNE lege famatua bozkatu zuten 1951ean. Lehen aldikotz, Frantziak onartu zuen erresumako eskualdeko hizkuntzak, bederen aipatuak izan daitezten eskoletan. Ordu arte debekatua, legez kontrakoa zen hizkuntza horien erakustea! Lege berri hori ez zen zinez iraultzalea: Astean oren batez, nahi zuten ikasleei, “activités dirigées” deitu gaietan, irakasleak bertako hizkuntza sar zezakeen, ezagutza soilenak, bistan da: nola irakurtzen eta idazten den, kantuak... Beste ahal bat: Bac pasatzen zuten ikasleek, “option facultative de langue régionale” delakoa presenta zuketena, ahozkoa, eta ez zuena notarik ematen.

1955ean etsamina hori pasatu nuen, René LAFON frantses euskalari filologo famatuarekin. Geroztik jakin dut hura zela! Euskara da nere lehen hizkuntza, baina orduan, ez nintzen batere alfabetizatua euskaraz eta lizeoan ez zen, bistan da, sekulan euskara aipatzen!

Dena den Frantzia mailan, bi hizkuntza zuten eskualdetan, etxekoa eta eskolakoa, Bretania, Okzitania, Katalunia, Euskal Herria etabar, elkarte batzu sortu ziren, hizkuntza horien irakaskuntzaren alde. Hala nola, gure lurraldean, IKAS. Jadanik elkarte bat bazen, EUSKALTZAILEEN BILTZARRA, 1901ean sortua. Elkarte horrek deiturik, talde bat bildu zen Baionako Euskal Erakustokian. Bi egunez, 1959ko agomilaren 27 eta 28an, eztabadatu zuten gaia izan zen: Helduden sartzean, nola euskara erakasi eskoletan. Huna hemen GURE HERRIAK agertu zuen liburuxka pedagogia egun horiek aipatuz:

– Louis DASSANCE, Euskaltzaileen Biltzarraren zuzendariak aintzin solasa eta egitaraua presentatu zuen.

– Pierre LAFITTE apezak: Herri-hizkuntzen erakaskuntza eta legegintza, historikoa, 1792 tik 1951ra.

– Madeleine de JAUREGUIBERRY-k: Euskararen irakaskuntza, diskak erabiliz.

– Eugène GOYHENECHÉ-k: Herriko historia eta geografiaren irakaskuntza.

– Michel LABEGUERIE-k: Elebitasunaren psikopedagogiko balioa.

– Jeanne Marie MALHARINek: Lehen mailako eskola baten elebitasun esperientzia bat.

– SAUVEUR NARBATIZ, eskola publiko baten zuzendariak: Zergatik eta nola euskara irakatsi eskolan. Liburuxka bat presentatu zuen, M.L.C.R. (Mouvement laïque des cultures régionales) delakoak agertarazia. Elkarte hori 1958 sortu zen, Uzès, Gard departamenduan. Hor oroitzapen persona la bat aipatuko dizuet, onartzen baduzue! Narbaitz jaunak proposaturik, parte hartu nuen Marly-Le-Roi hirian. Euskal-Herriko, Publikoko erakasleen ordezkari. Bakarrik nintzen, aldiz, Bretaniarrak eta Okzitaniarrak, nonbre handitan, dinamikoak eta famatuak ziren. Eta ni ixil ixila. Garai hori ez dutenek ezagutu, ez dezakete asma nolako basamortuan geuden orduan euskaltzaleak! Bon, izul gaiten Ikasera.

Mintzaldi guzi horiek frantsesez egin ziren. Gaur egun, holako gauza bitxi zaigu!

IKASen administrazio kontseilua eta bulegoa bozkatu zuten. Azpimarratu behar da baitezpadakoa zela partaide guzientzat bi eskolak, publikoa eta giritinoa berdin idurikatuak izatea. Hala nola bulegoan deituak izan ziren:

Louis DASSANCE, zuzendaria.

Jean Pierre SALLABERRY, Donibane Garaziko “Cours Complémentaires”eko zuzendaria eta Jeanne Marie MALHARIN, biak zuzendari ordeak.

Pierre LAFITTE apeza eta Sauveur NARBATIZ, idazkariak.

Jean ITHURRIAGUE, Baionako Euskal Erakustokiko zuzendaria, diruzaina.

2. IKASEN ALDAKETAK, GORA-BEHERAK ETA EKINTZAK

A) 1959-1972

Ikas-en egoitza Euskal Erakustokia da, Marengo karrikan. Legeen arabera elkarteak ahal guztiak egiten ditu euskara sar dadin eskoletan. Irakasle euskaltzaleak badira, bai eskola publikoetan, bai eta ere pribatuetan, baina bakanak dira. Gauza bera gertatzen da burasoekin.

Administrazio...pisua, gehienetan, zinez kontrakoa.

Legeen aldetik ez da deus berririk. Hala ere, 1971an agertu zen “circulaire” deitua interesgarria izan zen: Lizeoetan, gutienez 10 ikasle maila bakoitzean (2e, 1ère, terminale) eskatzen bazuten euskara ikastea, 3 oron astean kurtso horiek emaiten ahal zitezkeen. Urteak pasatu ziren lege hori aplikatua izan aintzin!

B) 1972-1985

1972an erreberitze bat izan zen. Jende berriak etorri ziren, estruktura ere berritua izan zen. Jean Haritschelhar, bulegoko kideetarik bat, zuzendari hautatua izan zen, Louis Dassance-ek bere kargua hutzirik. 1975ean egoitza bat alokatu genuen Port-Neuf karnikan eta permanente bat, Manex Goyhenetche, postu erdiz hartu, Kontseilu Orokorren diru laguntzari esker. Bulego berria bozkatu ginuen, eta, beti bezala, zenbat eskola publikoko irakasle, hainbeste eskola pribatukoak behar ziren. Zuzendari-ordeak hautatuak izan ziren, Pierre Lafitte eskola giirstinuen ordezkari eta...eskola publikoena...ni, bi jaun jakintsun eta famatuen ondoan, irakasle tar bat.

1) *Liburuen argitalpena*: Ahal bezain ongi, roneo eta polikopigailuen medioz gehienetan, euskaraz ala frantsesez., liburu frango argitaratu genituen. Horien artean:

– 6 “*Cahiers d’Ikas*” 1959 bertan agertuak

– *Xoria kantari*, Marie Jeanne MINABERRYren kantuak, 1965ean eta 1971ean.

– *Bayonne et le Pays basque, témoins de l’histoire* M. SACX idatziak.

– *Géographie des Basses Pyrénées*, 1968

– *Poèmes basques de Salvat Monho (1749-1821)* Pierre Lafitte, 1972

– *Euskal alorretik eta Euskal texto bilduma*, 2garren mailako ikasleentzat....

2) *Ekintzak*:

- *Ikastaldiak*: Irakasleak biltzen ginen gai ainitz aipatzeko: irakaspen arazoak, euskal kultura, gure herriaren historia eta mitologia...Publiko eta pribatuko irakasleek elkar lan egiten ginuen giro sano batean. Ez ginen, ez, nonbre handitan, domaia!

– *Xapelketak*: Euskaltzaleen Biltzarra elkartearekin batean eskola guzietako haureri proposatzen zaien xapelketa batean parte hartzea euskaraz texto bat eginez.

– *U.E.U.*: 1973an, lehen aldikotz, IKASek Udako Euskal Unibersitate antolatatu zuen. Bi urtez, Donibane Lohizuneko Ravel lizeoan egin zen. Geroztik U.E.Uk bere gain segitzen du.

– *Eskakizunak eta elkartzeak*:

Eskakizunak Herriko-etxeeri. Erran behar da bazirela hastapenetik diru laguntza eskaintzen zigutenak, eskerrak milaka hoieri! Diru laguntza eskatzen ginuen ere departamendua eta estatuari.

Eskola guziek ez zuten legeak aplikatzen, 1971koa, bai eta ere 1982koa, Savary ministroak ezarria. Lege horrek baimena ematen zuen kolegioetan, eskualdeko hizkuntzak erakatsiak izan daitezken, 6garren eta 5garrenean, oren bat astean, eta 4garren eta 3garrenean, 3 oren astean, nahi zuten ikasleeri. Beraz, eskoletako zuzendariari eskatzen genien kurtsu horiek ez ote zuten antolatzen ahal.

Garai hartan, Frantzia mailan elkarte kultural ainitz, Ikas bame, bildu ziren federakunde batean, C.N.D.I. C. R. deitua lehenik eta gero D.P.L.F. (Défense et Promotion des Langues de France).

Euskal-Herrian ere, Federakunde batzu sortu ziren, Pizkundera, 1984ean. Elkarte kulturala gehienak, Ikas bame, bistan da, hortan sartu ziren. Pizkunderaren eskakizun handiena zen: Euskal hizkuntza eta kulturalaren estatutoaren finkatzea.

Euskal irakaskuntza zabaltzen ari da:

– Han hemenka, eskoletatik aparte euskal kurtsuak ematen zituzten elkarteak biltzen dira A.E.K Iparralde eta hegoaldeko federakundeetan.

– Ikastolak aintzina doaz. 1983tik goiti eskola publikoetan klase elebidunak sortu dira eta 1986etik goiti eskola giritinoetan.

Elkarte kulturalak zabaltzen, biltzen eta fermuki mendekatzen ari dira gobernu berriak 1981ean hautetsiak hitzmana errespetatuz, hauteskunde aintzin egin ziren agintza goxoak orain praktikan ezari behar dira!

Aintzinamen orokor horren artean, Ikas murizten ari da. Elkartearen partaideak han eta hemen hartuak dira. Ez daiteke denetan izan! Bestalde behargabe bat gertatzen zaigu: 1985ean, Kontseiku Orokorak diru laguntza mozten du eta mozten permanentearen postu erdia. Gure idazkaria, Manex joaten zaigu. ZER egin? Ikas etsi?

Ez, urte baten buruan, gure elkarte berpizten da bigarren aldikotz.

1986ean, Erramun BACHOC, irakasle linguista, Ikasera heldu zaigu, Quebec-etik itzulia. Metodo berri bat egitea, proposatzen dio Kontseilu Generalari. Metodo honi, Euskaraz bizi deitua, audio-bisuala da. Kontseilu Orokorak baimena ematen dio eta diru laguntza eskaintzen. Berehala, Erramun lanean hasten bere taldearekin eta urtero liburuxka eta bideo kazeta bat agertzen dira, Ikas elkartearen izenean. Orotara, 4 liburu eta 5 bideo kazeta agertu dira. Metodo interesgarria eta alai, telebistan agertzea zinez merezi zuen.

Anartean, Ikas-ek diru laguntza lortzen du Europa eta Euskadi-Akitaniarengatik.

B) 1986-1996

1988an Jean Haritschelhar euskaltzainburu deitua izanik, Ikas-en zuzendaritza uzten du eta pasatzen dit, eni, lekukoa. Handik laster erabakitzen dugu lekuz aldatzea. Bulegoko emazteak, ez ginen emazteak baizik, orduan! fermuki hasten gira negoziaketan Henri Grenet Baionako auzapezarekin, Agnès Larroulet, andere bipilaren laguntzarekin! Apartamendu huts bat proposatzen digute Pannecau kanikan. Antolaketan hasi ginen herriko-etxeko diru laguntza eta langileekin, bai eta ere gure besoen laguntzarekin.

1990ean, egoitza txukun batean etxe sartzeari egin ginuen. Egoitza hori bi elkarteen artean erabiltzen genuen, Ikas eta Euskaltzaindia. Bien artean, idazkari bat hartu ginuen, Añes Dufau, zinez neska gazte xintzoa eta langilea!

Bost urteren buruan, berriz lekuz aldatu ginen. Baionako auzapezak, Jean Grenet-ek erran zigun, Pannecau kanikako etxeak eraberritu behar zituztela bizitegi berriak egiteko. Beraz, hasi ginen berriz beste egoitza baten xeka. Pentsatzen ginuen beti Baionan egon behar ginuela, baina, Ustarizeko herriko-etxeak egin zigun ustegabeko proposamen pozgarri bat, Lota jauregiaren bigarren estaian jartzea. Baionatik joan, beraz? Eta Euskaltzaindia nora joanen ote da? Duda batzuen ondotik, prosamena onartu ginuen. Herriko-etxeak estaia poliki antolatu zuen eta 1996an Ikasek etxe sartzeari egin zuen jauregi eder hortan. Erretretan sartu berria nintzen, irakasle gazte dinamikoak baziren lan egiteko prest, beraz, gogotik zuzendaritza utzi nuen. Xan Errotabehere, bulegolo zuzendari ordeari eman nion lekukoa. Ikas Centre Pédagogique Basque Ikas, Ikas Euskal Pedagogia Zerbitzua bilakatua da. Gure betiko ametsa! Añes Dufau, idazkari ohia kudeatzaile “directrice” da orain.

Zenbat bide ez du egin Ikas-ek Port- Neuf kanikako apartamendu tristetik ateratuz geroz! Hamar urtez! Gauzak ongi doazi. Lan zinez interesgarria egiten ari dira.

Ikas-en argitalpenak:

Kantiruri: CD polit bat, 25 haur-kantu berriekin, liburuxka batekin.

Hatz eta behatz: maleta pedagogikoa.

Annales des épreuves écrites de basque au baccalauréat, avec corrigés (1992-1998) Akitaniako CRDP-rekin batean egina.

Helduden urteko, proiektu zinez baikorrak dituzte. Zorionak beraz talde dinamiko horri!

Zeru gainetik, 1959eko ikas-en sortzaileek oraiko Ikas ikusten balute, zer poza! 40 urteren buruan, zer aintzinabide! Hala ere, denek gogoan dugun kezka da: Euskara salbatuko ote dugu?

IKAS, association culturelle basque

1. LA NAISSANCE D'IKAS

La Loi DEIXONNE votée en 1951 va faire naître à travers le pays plusieurs associations favorables aux langues régionales. C'est la première fois que la France admet que l'on peut évoquer dans les écoles ces langues autres que l'officielle français. Ce n'est certes pas une loi révolutionnaire: les enseignants peuvent évoquer la langue régionale, à raison d'une heure par semaine en tant qu'activité dirigée à des élèves volontaires. Il s'agissait de leur donner quelques notions de lecture, d'écriture, de leur enseigner quelques chants. De plus, on donnait aux bacheliers la possibilité de passer l'épreuve facultative de langue régionale, mais cela ne leur accordait pas de points.

En 1959, *Euskaltzaleen biltzarna*, association basque qui existait depuis 1901 proposa deux journées pédagogiques pour l'enseignement du basque à l'école. Ces journées se déroulèrent au Musée Basque à Bayonne les 27 et 28 août 1959. Gure Herria édita un numéro spécial, évoquant ces deux journées. Le livret reproduit les prises de parole de sept participants parmi lesquels nous retrouvons Madeleine de Jauréguiberry et une autre dame qui est aujourd'hui parmi nous, Jeanne Marie Malharin. Ces prises de paroles se firent toutes en français.

– Louis DASSANCE, président d' *Euskaltzaleen Biltzarna* ouvrit la séance en présentant le programme.

– L'abbé Lafitte évoqua *L'enseignement des langues régionales face à la législation*.

– Madeleine de JAUREGUIBERRY: *Le disque au service de l'enseignement du basque*.

– Eugène GOYHENETCHE: *L'enseignement de l'histoire et de la géographie locales*.

– Michel LABEGUERIE: *De l'intérêt psycho-pédagogique du bilinguisme*.

– Jeanne Marie MALHARIN: *Une expérience de bilinguisme à l'école primaire*.

– Sauveur NARBAITS: *L'enseignement du basque à l'école*. Mr Narbaits, directeur d'une école publique présenta un livret du Mouvement Laïque des Cultures Régionales, M.L.C.R. Cette association fut créée en 1958 à Uzès, dans le Gard..

Suite à ses prises de paroles, l'association *Ikas* fut créée. On procéda à l'élection du conseil d'administraton, puis celle du bureau. Dès le début, le

souci de tous les participants était qu'il fallait élire le même nombre d'enseignants du public que du privé. Le bureau fut constitué:

– *Président*: Louis Dassance.

– *Vice-présidents*: Jean Pierre Sallaberry, directeur du Cours Complémentaire de St Jean-Pied-de-Port et Jeanne Marie Malharin.

– *Secrétaires*: L'Abbé Pierre Lafitte et Sauveur Narbaits.

– *Trésorier*: Jean Ithuriague, le Président du Musée Basque.

2. L'ÉVOLUTION D'IKAS, LES HAUTS ET LES BAS, SES ACTIVITÉS

A) 1959-1972

L'assemblée générale avait réuni des gens convaincus, prêts à oeuvrer pour introduire l'enseignement du basque dans les écoles, mais leur message n'était pas tout jours facile à passer. Il y avait beaucoup de personnes indifférentes, hostiles même dans l'administration, parmi les collègues et les parents. On a longtemps prêché dans le désert!

Le gouvernement n'a guère voté d'autres lois; la circulaire de 1971 autorisait l'enseignement de la langue régionale dans les lycées, à raison de 3 heures par semaine, dès qu'un minimum de 10 élèves par niveau, 2e, 1ère et terminale se portait volontaire pour recevoir cet enseignement. Il a fallu attendre des années, pour que cette circulaire soit appliquée même partiellement.

B) 1972-1985

En 1972, il y eut un renouveau, de nouveaux adhérents, on renouvela également les structures. Jean Haritschelhar qui était membre du bureau succéda comme président à Louis Dassance. En 1975, l'association s'installa à la rue Port-Neuf, dans un appartement plutôt vétuste. Grâce à une subvention du Conseil Général, un permanent, Manex Goyenetche, fut embauché, en demi poste. Il y eut de nouvelles élections. Jean Haritschelhar continua à être président et comme convenu au départ, on élit deux vice-présidents, l'un représentant l'enseignement privé, l'Abbé Lafitte et...moi-même, l'enseignement public. J'étais bien intimidée auprès de ces deux enseignants chevronnés et célèbres!

1) *Les éditions*:

Durant cette période, de 1959 à 1985, on édita différents ouvrages, souvent avec les moyens du bord qui étaient plutôt précaires, roneo et polycopieuse. Parmi ces ouvrages:

– 6 *Cahiers d'Ikas*, dès 1959.

– *Xoria Kantari* de Marie Jeanne Minaberry, deux recueils de chansons, parus en 1965 et en 1971.

– *Bayonne et le Pays basque, témoins de l'histoire* de M. Sacx (1968)

– A la même année et écrit également par M. Sacx: *Géographie des Basses-Pyrénées*.

– *Poèmes basques de Salvat Monho (1749-1821)* recueillis par l'Abbé Lafitte (1972)

– *Euskal aboretik*, puis *Euskal texto bilduma*, deux recueils de textes pour le secondaire. etc...

2) *Les activités:*

- Nous organisons des *stages* pour les enseignants pour discuter notamment des problèmes concernant l'enseignement du basque. Les enseignants des ikastola, (la première fut créée en 1969) suivaient plutôt les stages de formation organisés par la fédération *Seaska*.

On évoquait aussi l'histoire du Pays Basque, ainsi que la mythologie, plutôt ignorées dans les écoles.

– *Les concours pour enfants*: Avec l'association *Euskaltzaleen Biltzarra*, nous proposons aux élèves de toutes les écoles de participer à des concours qui consistaient à écrire de petits textes en basque.

– *U.E.U.* En 1973, *Ikas* organisa pour la première fois *Udako Euskal Unibersitate*, L'Université Basque d'Été qui se déroula au Lycée Ravel de St Jean-de-Luz, les deux premières années. Ce stage a toujours lieu début juillet. U.E.U. est aujourd'hui autonome.

3) *Les revendications et les regroupements:*

Il fallait toujours quémander des subventions auprès des mairies, il faut dire qu'il y en a qui nous ont toujours aidés, ce qui nous a souvent permis de survivre. Un immense merci à celles-là! Demande de subventions au département, à l'Etat. Revendications afin que les lois soient appliquées. Celle de 1971, mais aussi la circulaire du Ministre Savary en 1982 qui autorisait la création de cours de langues régionales en collège, en tant qu'option facultative, à raison d'une heure par semaine en 6e et 5e, et 3 heures en 4e et 3e. Nous nous permettons d'insister auprès des chefs d'établissements qui paraissaient ignorer ces lois.

Durant cette époque, plusieurs associations culturelles, dont *Ikas* se sont groupées dans la fédération C.N.D.L.C.R. qui est devenue par la suite D.P.L.F. (Défense et Promotion des Langues de France).

Ici, en *Euskal-Herri*, on a créé également plusieurs fédérations: **Pizkundea** en 1984 qui regroupait la majorité des associations culturelles, y compris *Ikas*. *Pizkundea* revendiquait notamment un statut de la langue et de la culture basque.

L'enseignement du basque est en pleine expansion:

– Les associations qui organisaient des cours de basque pour adultes se groupèrent dans la fédération A.E.K. des deux côtés de la frontière, Iparralde et Hegoalde.

– L'enseignement du basque se développe dans les écoles: Les ikastola sont en plein développement. A partir de 1983 s'ouvrent les sections bilingues dans la filière publique, et à partir de 1986, dans la filière privée catholique.

Tandis que toutes ces associations se développent, se regroupent et revendiquent vigoureusement afin que le nouveau gouvernement élu en 1981 mette en pratique les belles promesses faites durant la campagne électorale, *Ikas*, par contre périclité. Les membres les plus actifs militent ailleurs, dans l'effervescence post-électorale. De plus, un revers de fortune nous tombe dessus: En 1985, le Conseil Général réduisit ses subventions et il fallut licencier Manex, notre secrétaire. Que faire? Mettre la clé sous la porte? Non. L'année suivante, il y eut un nouveau réveil.

C) 1986-1996

En 1986 arrive Erramun BACHOC. Ce professeur basque en linguistique revient du Québec où il a exercé durant plusieurs années. Il désire créer une nouvelle méthode basque audio-visuelle appelée **Euskaraz bizi** et demande une aide financière au Conseil Général. Celui-ci accepte et Erramun se met au travail avec son équipe. Chaque année ils produisent, au nom d'*Ikas*, une cassette-video et un livret et cela pendant cinq ans. La méthode est intéressante et très attrayante. Elle méritait un meilleur succès, et aurait pu être utilisée par la télévision.

Ikas obtient pour ses propres besoins des subventions de la communauté européenne et de la communauté Euskadi-Aquitaine.

En 1988, Jean Haritschelhar devient Président de l'Académie basque, *euskaltzainburu* et quitte l'association en me passant le relais.

Les femmes du bureau, les messieurs nous ont abandonnées! nous nous mettons en campagne pour négocier un nouveau local auprès de Monsieur le

Maire de Bayonne, Henri Grenet. La dynamique Inés Larroulet nous accompagne dans nos démarches. On nous propose deux appartements inhabités d'une maison ancienne de la rue Pannecau appartenant à la ville. Il y a évidemment de gros travaux à réaliser. Avec l'aide des ouvriers de la ville, des amis et de nous-mêmes, bien sûr; un hommage particulier à Erramun Bachoc!, nous arrivons à aménager un joli local qui sera inauguré en mai 1990. Notre bibliothèque, de manuels scolaires notamment, s'est agrandi. Nous avons de l'espace pour faire nos réunions. Le local est utilisé par deux associations, *Ikas* et *Euskaltzaindia*, l'Académie de la Langue basque. Nous embauchons conjointement une secrétaire, Añes Dufau qui s'avère aimable et très efficace!

Cinq ans plus tard, il fallut quitter ce local. Le Maire de Bayonne, Jean Grenet nous annonça que les maisons de la rue Pannecau allaient être restaurées pour être à nouveau habitées. On se remit en campagne pour trouver un nouveau local en ville. C'est alors qu'on nous proposa de nous installer à Ustaritz, au deuxième étage du chateau Lota qui appartient à la commune, le Centre culturel basque, *Euskal Zentro Kulturala*, occupant le premier. Des hésitations: Quitter Bayonne? Où va se loger *Euskaltzaindia*? Réflexions faites, on accepta la proposition de Mr Bernard Auroy, Maire d'Ustaritz. La Municipalité aménagea superbement l'étage. L'entrée au chateau se fit en 1996.

Quel chemin parcouru depuis le triste local de la rue Port Neuf, la roneo et la polycopieuse...10 ans plus tôt!!

1996, l'année de ma retraite d'enseignante, je décidais de ne plus être présidente...même châtelaine! Il y avait de jeunes enseignants dynamiques et je passais le relais avec joie, à Xan Errotabehera, le président-adjoint. *Ikas* est devenu Centre Pédagogique Basque *Ikas, Euskal Pedagogia Zerbitzu*. Añes Dufau est devenue directrice.

Les publications qui ont été réalisées sont:

- **Kantiruri**: un CD de 25 chansons nouvelles pour enfants accompagné d'un livret.
- **Hatz eta behatz**: une mallette pédagogique.
- **Annales des épreuves écrites de basque au baccalauréat, avec corrigés (1992- 98)** en coédition avec le CRDP d'Aquitaine.

Des projets intéressants sont prévus pour la rentrée prochaine. *Ikas* a le vent en poupe! Félicitations à cet équipage dynamique!

Si du haut du ciel nos pionniers, ceux qui ont créé *Ikas* pouvaient voir le nouvel *Ikas*, quelle joie! En 40 ans, que de progrès! Cependant, il y a une inquiétude en nous: Va t'on sauver le basque?

Urruñá, 2000. 07. 14

Bref historique de l'association Ikas

1951: La Loi DEIXONNE autorise, pour la première fois en France, l'enseignement des langues régionales dans les écoles.

1959: EUSKALTZALEEN BILTZARRA, association créée en 1901, organise deux journées pédagogiques pour l'enseignement du basque à l'école, le 27 et le 28 août, au Musée Basque. Au cours de ces journées est créé l'Association IKAS.

1) Période 1959-1972:

Les éditions: Entre autres:

– *Les cahiers d'Ikas*, dès 1959, 6 livrets.

– *Xoria Kantari*, de Marie Jeanne Minaberry, deux recueils de chansons parus en 1965 et en 1971.

– *Bayonne et le Pays Basque, témoins de l'histoire*, par M. Sacx en 1968...

Les activités: Stages de formation pédagogique, culture, histoire, mythologie...

Concours pour enfants, organisés avec Euskaltzaleen Biltzarra.

En 1973, création d' Udako Euskal Unibersitatea.

Evénements durant cette période:

Loi de 1971: Enseignement des langues régionales dans le secondaire.

1969: Création de la première ikastola en Iparralde.

2) 1972-1985: Un renouveau d'Ikas, nouveaux adhérents, nouvelles structures. Jean Haritschelhar succède à Louis Dassance comme président.

En 1975, *Ikas* s'installe à la rue Port-Neuf. Nouvelle élection du bureau. Mr Haritschelhar garde la présidence, deux vice-présidents, conformément aux décisions prises dès le départ, l'un représentant l'enseignement privé religieux, l'Abbé Lafitte et l'autre, l'enseignement public, Danielle Albizu Pilotte. Les subventions de Conseil général permet à l'association d'embaucher un permanent en demi service, Manex Goyenetche.

Les éditions continuent, souvent réalisées à la roneo ou à la photocopieuse... Parmi ces éditions, *Euskal Alorretik* eta *Euskal texto bilduma*, deux recueils pour le secondaire.

A partir de 1981, l'élection de François Mitterrand à la présidence, qui fait suite à une campagne très riche...en promesses, *Euskal Herri* connaît une période effervescente: créations, regroupements:

– 1984: Création de Pizkundea, fédération qui regroupe la plupart des associations culturelles.

– Création de AEK, enseignement du basque pour adultes, fédération pour l'ensemble d'*Euskal Herri*, Hegoalde et Iparralde.

Tandis que les ikastola se développent, s'ouvrent en 1983 la première classe bilingue, dans le filière publique et en 1986, dans la filière catholique.

Au milieu de ce déploiement enthousiaste, *Ikas* périclité. La plupart des membres du bureau sont occupés ailleurs. De plus, la subvention de Conseil Général ayant diminué, il a fallu renoncer au demi-poste de permanent.

3) 1986-1996: En 1986, se produit un nouveau réveil. Eramun Bachoc, professeur basque en linguistique revient du Québec et propose de créer une nouvelle méthode audio-visuelle, *Euskaraz bizi*. Le Conseil Général accepte de financer le programme. Chaque année, l'équipe produit une cassette-video et un livret, au nom d'*Ikas* et cela pendant cinq ans. D'autre part, *Ikas* va bénéficier de subventions de la part de l'Europe et de la communauté Euskadi-Aquitaine.

En 1988, Jean Haritschelhar devient *Euskaltzainburu*, président de l'Académie de la Langue Basque et passe le relais à Danielle Albizu Pilotte. Le nouveau bureau, constitué uniquement de femmes, va négocier avec le Maire de Bayonne, Henri Grenet l'utilisation de deux appartements vides d'une maison ancienne de la rue Pannecau. Le local est inauguré en 1990. L'appartement joliment aménagé sera occupé par deux associations, *Ikas* et *Euskaltzaindia*. Une secrétaire est embauchée, à mi-temps par chacune des associations. C'est Agnès Dufau qui sera choisie.

Ikas va bon train, bibliothèque, stages, nouvelles éditions...

En 1995, il a fallu rendre le local à la Mairie de Bayonne, la maison devant être restaurée pour créer de nouveaux appartements.

La Municipalité d'Ustaritz propose alors à *Ikas* de l'accueillir au 2e étage du château Lota, le premier étant occupé par le Centre Culturel Basque. L'étage sera superbement aménagé et l'entrée au château se fera en 1996. Agnès Dufau devient directrice, un nouveau bureau est élu, Danielle Albizu passe le relais à Xan Errotabehera. *Ikas* est devenue Centre Pédagogique Basque *Ikas*. Les activités se poursuivent, ainsi que les publications: *Kantiruri*, *Hatz eta behatz*, *Annales des épreuves écrites de basque*.

Ikas elkartearen historiko labur bat

1951: DEIXONNE legeak baimena ematen du, lehen aldikotz, eskualdeko hizkuntzak eskoletan irakatsiak izan daitezen.

1959: EUSKALTZALEEN BILTZARRA elkarteak, 1901ean sortuak, bi pedagogia egun antolatzen ditu, agorriaren 27 eta 28an, Euskal Erakustokian, nola euskara irakatsi eskoletan gaiaren aztertzeko asmotan. Egun horietan, Ikas elkarteak sortarazten dute.

1) 1959- 1972:

Liburuen agertzea: Horien artean:

– *Les cahiers d'Ikas*, 1959 tik goiti, 6 liburu.

– *Xoria Kantari*, Marie Jeanne Minaberry-k idatziak, 2 kantu bilduma 1965 eta 1971 agertuak.

– *Bayonne et le Pays basque, témoins de l'histoire* M. Sacx irakasleak idatzia 1968an.

Ekintzak: Ikastaldiak: Pedagogia, historia, mitologia...

Xapelketak haurrentzat Euskaltzaleen Biltzarrekin batean.

1973an, Udako Euskal Unibersitatea sortzen da.

Gertakari aipagarri batzu:

1971ko legea: eskualdeko hizkuntzen irakastea bigarren mailan.

1969: Lehen ikastolaren sortzea Iparraldean.

2) 1972- 1985: Ikas-en erreberitze bat gertatzen da. Kide berriak sartzen dira, estruktura ere beritzen dira. Louis Dassance-en ondotik Jean Haritschelhar zuzendari hautatua izan da.

1975ean, Ikas Port-Neuf kamikan jartzen da. Bulegoa beritzen da, Jean Haritschelhar zuzendari segitzen du. Hastapenean erabakia izan zena, bi zuzendari-orde hautatzen dira, bat eskola girstinoen ordezkaria Pierre Lafitte apezpe eta bestea eskola publikoena, Danielle Albizu-Pilotte. Kontseilu Orokorren diru laguntzari esker, permanente bat, postu erdiz, hartzen dute, Manex Goyhenetche.

Ikasek liburuak agertaratzen segitzen du. Horien artean, *Euskal alorre tik* eta *Euskal testo bilduma*, bigarren mailako ikasleentzat.

1981ean, agintza polit ainitz egin ondotik, François Mitterand errepublikako lehendakari hautatua da. Euskal Herriko elkarteak irakitan daude:

– 1984ean Pizkundea federakundea sortzen da elkarte kulturala gehienak biltzen dituela, Ikas barne, bistan da.

– AEK federakundea ere sortzen da eta Hegoalde eta Iparraldeko gau eskola gehienak biltzen ditu.

– Ikastolak aintzina doaz. 1983tik goiti, klase elebidunak sortzen ari dira eskola publikoetan. Gauza bera gertatzen da eskola girstinoetan 1986 etik landa.

Zabaltze kartsu horren artean, ikas, aldiz, murrizten ari da. Kide gehienak han eta hemen hartuak dira Bestalde, Kontseilu Orokorak diru laguntza moztu du eta moztarazten permanentearen postu-erdia.

3) 1986-1996: 1985ean berpizte bat gertatzen da. Eramun Bachoc erakaslea, linguista Quebec-etik itzultzen da eta metodo berri bat egitea proposatzen du, Euskaraz bizi. Kontseilu Orokorak onartzen du metodo horren sustengatzea. Urtero bideo-kazeta eta liburuxka bat taldeak agertzen ditu, Ikas-en izenean eta hola bost urtez. Bestalde Ikas-ek diru laguntza lortzen du Europa eta Euskadi-Akitaniaren ganik.

1988an, Jean Haritschelhar Euskaltzainburu hautatua izanik, Ikas-en zuzendaritza usten du Danielle Albizu-ri lekukoa pasatuz. Bulego berrian ez dira emazteak baizik. Deliberatzen dute tokiz aldatzea. Henri Grenet, Baionako auzapezak proposatzen die Pannecau karrikako etxe batean bi apartamendu hutsa, zinez antolatzeke beharra zutenean kokatzea. 1990 etxe sartzea egiten da. Lokala hori bi elkarteek okupatuko dute: Ikas eta Euskaltzaindiak. Idazkari bat, Añes Dufau, bi elkarten arte hartzen dute.

Bost urteren buruan leku hori hustu behar izan dute. Herriak Karrikako etxeak erabemitzea deliberatu du bizitza berriak eraikitzeke. Beraz, taldea badoazi beste etxe baten xeka.

Ustaritzeko Herriko etxeak Ikas-i proposatzen dio Lota jauregiaren bigarren estaian jartzea. Lehenean, Euskal Kultur Erakundea dago. Lokala poliki apaindu batean sartze berria egiten du 1996an. Añes Dufau, kudeatzaile, *directrice* bilakatzen da eta Xan Errotabehere bulego berriaren zuzendari.

Orai Ikas Euskal Pedagogia Zerbitzua bilakatua da. Zerbitzu ainitz irakasleeri eskaintzen dizkie.

Argitalpenak: Kantiruri, Hatz eta behatz, Annales des épreuves écrites de basque.

Helduden urteko, proiektu interesgarriak dituzte.

– L'association culturelle basque *Ikas* créée en 1959 est devenue, depuis 1996, **Centre Pédagogique Basque Ikas, Euskal Pedagogia Zerbitzua**. Son siège est Lota jauregia - 64480 Uztaritze.

– Fondée par des enseignants de la filière publique et de la filière privée catholique et autres bascophiles, cette association avait pour objectif l'enseignement du basque, notamment dans les écoles, en application de la loi Deixonne votée en 1951.

– *Ikas* propose trois types de service:

– un centre de documentation, essentiellement du matériel pédagogique en basque.

– un service de création et d'édition de matériel pédagogique pour les élèves et enseignants de tous les niveaux scolaires, de la maternelle jusqu'au baccalauréat.

– des animations pédagogiques. Exemple: *Ikas* propose aux élèves et enseignants d'étudier en classe une oeuvre de littérature basque contemporaine et d'inviter l'écrivain.

Centre Pédagogique Basque *Ikas*: documentation, création et édition, animations pédagogiques.